



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**OGASUN-BATZORDEAREN IRIZPENA**

**AURREKARIAK**

Abenduaren 22ko Ogasun Batzordean, gobernu-taldeak 2017ko ekitaldirako prestatuturiko aurrekontua aurkeztu zuen Ana Azkoitia Urteaga batzordeburuak abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan oinarrituta, hau da, Gipuzkoako lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa, IV. Kapituluaren aurrekontu orokorren gertuketa eta onespena zehazten dituen.

Dokumentua banatu egin zen aztertua izan zedin, eta azaroaren 28 eta abenduaren 7,16 eta 22an egindako bileretan aztertua izan da; hala, kezka guztiak argitu dira eta gainerako taldeen ekarpenak jaso dira.

**TXOSTEN TEKNIKOA**

Udaleko kontu-hartzaileak, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 6.3 e) artikuluan xedatutakoan oinarrituta, ekonomia- eta finantza-txosten bat egin du, honako hauetarako erabilitako oinarriak azaltzen dituena: aurreikusitako diru-sarreraren eta kreditu-eragiketen ebaluazioa, kredituen nahikotasuna eska daitezkeen obligazioei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko, eta, horren guztiaren ondorioz, aurrekontuaren benetako oreka. Era berean, udal-bitartekoak konpromisozko kredituak finantzatzeko aski direla dioen irizpena eman du.

Espedientean, dokumentu hauek daude:

Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu arauari buruzko kontu-hartzailearen txostena

Konpromisozko kredituen eranskina

Transferentzia arrunten eranskina

Zorpetze-eranskina

Pertsonalaren eranskina

Inbertsioen eranskina

Aurrekontu kontsolidatua

Aurrekontuaren betearazte-araua

2016ko aurrekontuaren aurrelikidazioa eta 2016ko irailaren 30erarteko aurrekontua kapitulozka exekututzea.

Ekonomia- eta finantza-txostena



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Ogasun, Finantza, Pertsonal, Barne antolaketa eta Kontratazio batzordeak, 2017.ko aurrekontuen proposamenak aztertu zituen. Hona hemen emaitza:

1.-Azkoitiko Udalak 2017ko ekitaldirako izango duen aurrekontua, 15.780.000,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Janire Igoa

KONTRAKO BOTOAK: Jose Joakin Etxaniz

2.-Zubiaurre Elkargune Institutuaren aurrekontua, 2017ko ekitaldirako, 774.900,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Janire Igoa

KONTRAKO BOTOAK: Jose Joakin Etxaniz

3.-San Jose Egoitzaren 2017ko ekitaldirako aurrekontua, 73.300,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz

4.-Azkoitia Lantzen SA ren aurrekontua 2017ko ekitaldirako, 2.030.069,00 eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Janire Igoa

KONTRAKO BOTOAK: Jose Joakin Etxaniz

:

5.-Azkoitiko Udalaren aurrekontu kontsolidatua 2017ko ekitaldirako, 17.892.609,40eurokoa

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Miguel Angel Bastida, Sonia Vázquez, Maitane Unanue, Janire Igoa

KONTRAKO BOTOAK: Jose Joakin Etxaniz

:

Horregatik guztiagatik, Ogasun Batzordeak Udalbatzarrari irizpen hau onartzea proposatzen dio.

**IRIZPENA**

1) Behin-behingo onartzea Azkoitiko Udalak 2017ko ekitaldirako izango duen aurrekontua, 15.780.000,00 eurokoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2º) Behin-behingo onartzea Zubiaurre Elkargune Institutuaren aurrekontua, 774.900,00 eurokoa.

3) Behin-behingo onartzea San Jose egoitzaren aurrekontua, 73.300,00 eurokoa.

4) Behin-behingo onartzea Azkoitia Lantzen, SAren aurrekontua, 2.030.069,00 eurokoa.

5) Behin-behingo onartzea aurrekontu kontsolidatua, 17.892.609,40 eurokoa.

6) 21/2003 Foru Arauak, 15. artikuluan, esaten du Udalbatzarrak Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena eman ondoren, jendaurrean jarriko dela, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki-oholean eta gehien zabaltzen den egunkarian iragarri ondoren, hamabost egunez jarri ere, eta epe hori bukatuta, erreklamaziorik ez bada izan, berriz ere ipiniko dela, osatzen duten aurrekontu guzti-guztiak kapituluka laburtuta, iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

7) Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek (21/2003 Foru Arauko 17. artikulua) alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

8) Behin betiko onartutako Aurrekontu Orokorraren kopia bat igorriko zaio Foru Aldundiari.

Azkoitia, 2016ko abenduaren 22a

Batzordeko Idazkaritza,